



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko azaroaren 7ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko azaroaren zazpian, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : DACHAGUER Peio.

Deialdiaren eguna : 2023ko azaroaren 3a

Afitzatze eguna : 2023ko azaroaren 3a

7. ERABAKIA: ELKARTASUN EGUNAREN ANTOLATZEA

(4.1 nomenklatura)

Auzapezak oroitarazi du 2004ko ekainaren 30eko 2004-626 frantses legeak elkartasun egun bat ezarri zuela, jende elbarritu eta adinekoen autonomiaren aldeko ekintzen alde. Ondorioz, denbora osoz ari den langile baten lan denbora 1600 orenetik 1607 orenera iragaiten da.

Organo erabakitzaileari dagokio elkartasun egunaren antolaketari buruzko honako moldeetako bat hautatzea: maiatzaren 1.a ez den festa egun batean lan egitea, Landenboraren Antolatze eta Murrizte Eguna (LAME) bat edo normalean atsedean eguna den beste edozein egunetan lan egitea, urteko opor egunez aparte.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta eztabaidaturik, eta Lurraldeko Batzorde Sozialaren iritzia ukanik,

ERABAKI DU, elkartasun eguna honela antolatzea:

- Urteko zikloan diren langileek elkartasun egunaren 7 ornak urte osoan leunduak izanen dituzte,

- Beste langileentzat:

Oren horiek oren gehigarri edo osagarrien kopurutik kenduko dira, langilearen baimenarekin,

edo Auzapezak, langileekin adosturik, oren horiek aldi batez edo gehiagotan eginaraziko dizkie zerbitzuaren beharren arabera.

ZEHAZTU DU, honako erabakia 2023ko abenduaren 1ean sartuko dela indarrean.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko azaroaren 7an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/11/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/11/14an.